



Pinky pailazoa liburutik ateratako audio pasarte bat entzungo duzu orain. Polizia bulegoan bi pertsonaiak hizketan ari dira.

Audioa entzun aurretik, galderak irakurri behar dituzu. Gero, entzun arretaz eta galderei erantzun.

1. “Ni ez naiz txantxazalea” dio polizia buruak. Zer esan nahi du “txantxazaleak”?

- A. Aginduzalea.
- B. Haserrekorra.
- C. Adarjotzailea.
- D. Antzerkizalea.

2. Richard Smithek zer egitea proposatzen du?

- A. Europara joatea.
- B. Interpolekin lan egitea.
- C. Lana bertatik koordinatzea.
- D. Inspektore guztiekin lana koordinatzea.

3. Nor da emakumea?

- A. Narratzailea.
- B. Polizi buruaren idazkaria.
- C. Richard Smithen laguntzailea.
- D. Gelan dagoen beste pertsonaia bat.

4. **"Demontre"** dio buruak. Zein beste hitz erabil daiteke horren ordezt?

- A. Kia!
- B. Kito!
- C. Hara!
- D. Arraio!

5. Nora joan beharko du azkenean Inspektoreak?

- A. Europara.
- B. Kanadara.
- C. Inora ere ez.
- D. Estatu Batuetara.

6. Audio pasarte honi zein izenburu jarriko zenioke?

- 1. Smith inspektoreak oporrak behar ditu.
- 2. Polizi burua haserre Smith inspektorearekin.
- 3. Polizi burua eta inspektorea elkarrekin haserre.
- 4. Bi poliziak hurrengo pausoak elkarrekin planifikatzen.

7. Zein da Richard Smithen asmoa?

- A. Europara joatea.
- B. Polizi burua haserraraztea.
- C. Opor egun batzuk hartzea.
- D. Inora ez joatea eta operazioa bertan koordinatzea.